

The logo for 'ikei' is displayed in a large, white, sans-serif font. The letters are three-dimensional and mounted on a dark blue, textured wall that resembles stone or brick. A horizontal white line is positioned below the letters 'kei'.

BERGARAKO MBPB

Diagnostikoa,
AMIA eta
Plana

E4989.001

2020ko Uztaila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Bergarako
Udala

AURKIBIDEA

1. SINTESIA ETA LANAREN ESKEMA OROKORRA	3
1.1 Lanaren eskema orokorra	4
2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK	5
2.1 Herritarrak eta errenta	6
2.2 Jarduera ekonomikoa	10
2.3 Jarduera turistiko-kulturala	15
2.4 Errepide-sarea eta garraio publikoa	17
2.5 Hiri-gunearen Azterketa	18
3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA	25
3.1 Bergarako merkataritza-jarduera	26
3.2 Guneen arabera Bergarako merkataritza-eskaintza	28
3.3 Enpresa txikizkariak	39
3.4 Merkataritza-lokalen betetze maila	41
3.5 Merkataritza gunea dinamizatzea	43
3.6 Inkesta merkatariei eta ostalariei	47
3.7 Bergarako Azoka	70
4. ESKARIAREN ANALISIA: BERGARAKO BIZTANLEEI INKESTA	72
4.1 Erosketa-ohiturak guneka	73
4.2 Sare sozialak eta onlineko erosketa	85
4.3 Erosketa prozesua eta esperientzia	88
4.4 Merkariarekin harremanetan jartzeko ibilbideak	95
4.5 Herriko erosketaren eta eskaintzaren balorazioa	96
5. ESKARIAREN ANALISIA: INGURUKO EGOILIARRAK	99
5.1 Lagina	100
5.2 Bergara Bisitatzeko Ohitura	101
5.3 Erosketa Ohiturak Bergaran	103
5.4 Bergaran ez erosteko arrazoiak / Bergara ez bisitatzeko arrazoiak	109
5.5 Bergararen irudia eta eskaintza	112
6. AMIA ANALISIA: AHULEZIAK, MEHATXUAK, INDARGUNEAK ETA AUKERAK	115
6.1 Ahuleziak	116
6.2 Mehatxuak	117
6.3 Indarguneak	118
6.4 Aukerak	119
7. BERGARAKO MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK / JARDUERA PROPOSAMENAK.....	120
7.1 Ildo Estrategikoak	121
7.2 Ekintza plana	128
7.3 Adierazleak.....	142



1.

SINTESIA ETA LANAREN ESKEMA OROKORRA

1. SINTESIA ETA LANAREN ESKEMA OROKORRA

1.1 LANAREN ESKEMA OROKORRA

0.Fasea: PROIEKTUAREN HASIERA

0.1 Eskuragarri dagoen informazioaren bilketa eta azterketa:

- ✓Udala
- ✓Hirigintza
- ✓...

0.2 MBPB Mahaiaren jarraipen Batzordean aurkeztea eta abian jartzea.

I.Fasea: ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA

1. UDALERRIAREN IDENTIFIKAZIO PARAMETROEN ANALISIA
2. EREMUAREN ESPAZIO MAILAKO ANALISIA
3. MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA
4. UDALEKO HORNIDURA SISTEMEN AZTERKETA: ZAMALANAK
5. MERKATARITZAREN OSAGARRI DIREN JARDUEREN AZTERKETA: OSTALARITZA, TURISMOA, KULTURA, ...
6. ESKARIAREN AZTERKETA
7. MERKATARITZARI LOTUTAKO PROGRAMEN BALORAZIOA

**BERGARAK
MERKATARITZAKO
ETA ZERBITZUEN
ARLOAN DUEN
KOKAPEN
LEHIAKORRAREN
INGURUKO
ONDORIOAK
AMIA ANALISIA**

II.Fasea: JARDUERA PROPOSAMENAK DISEINATZEA ETA ABIAN JARTZEA

**ILDO
ESTRATEGIKOEN
DEFINIZIOA**

**JARDUERA
PROPOSAMENAK
DISEINATZEA ETA
ABIAN JARTZEA**

2.

BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

- 2.1 HERRITARRAK ETA ERRENTA
- 2.2 JARDUERA EKONOMIKOA
- 2.3 JARDUERA TURISTIKO-KULTURALA
- 2.4 ERREPIDE-SAREA ETA GARRAIO PUBLIKOA
- 2.5 HIRI-GUNEAREN AZTERKETA

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK


2.1. HERRITARRAK ETA ERRENTA

2.1.1. BERGARAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA

BERGARAK 2019an 14.637 pertsonen osatutako BIZTANLERIA du. Bergararen biztanleria, azken 10 urteotan, nahiko egonkor mantendu da, 14.600 eta 14.800 biztanleen arteko aldaketekin. 2011an izan zuen biztanleriaren puntu baxuena, 14.577 biztanlerekin eta 2014an berriz, bere punturik altuena 14.831 biztanlera iritsiz. Geroztik, aldatzen joan da, igoera eta jaitsiera batzuekin, 2019an dituen 14.637ko biztanleria eduki arte.




BERGARAKO BIZTANLERIAREN bilakaera



2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.1.2. DEMOGRAFIA EZAUGARRIAK: BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA

BERGARAN, azken hamar urteetan, 2009 eta 2019 bitartean, adin nagusiko biztanleria nabarmenki hazi da (85 urte baino gehiagokoak eta baita 75 urtetik gorakoak ere). Halaber, gazteen hazkuntza ematen ari dela ikus daiteke, 19 urte baino gazteagoak diren pertsonen artean batez ere, nahiz eta 20 eta 45 urte arteko biztanleen jaitsiera (biztanleria gazte aktiboa) eman. Gaur egungo biztanleria egitura behatzean, epe laburrean zahartze prozesua sakondu egingo dela aurreratu dezakegu, familia izateko ahalmena duten adin-tartean dauden bergaratarren murizketa progresiboa ematen ari delako (34 urte eta beherakoak -% 10,1). Biztanle kopurua erlatiboki egonkor mantendu den arren, biztanle gehiago biltzen dituzten adin-taldeak aldatzen joan dira urte hauetan. Hartan, 2009an, biztanleria 30 eta 54 urte arteko adin-taldean kontzentratzen zen, berriz, 2019an 40 eta 60 urte arteko adin-taldera mugitu da.



2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.1.3. DEMOGRAFIA EZAUGARRIAK: BIZTANLERIA, ADINAREN ETA ERRENTAREN ARABERA

Azken hamarkadan, BERGARAK **igoera** **begetatibo negatiboa** izan du, beraz, **hamarkada honen saldo orokorra negatiboa da** (izan ere saldo negatiboko aldiak saldo positiboko beste batzuekin tartekatzen dira). 19 urtetik beherako haur eta gazteen ehunekoa % 6,6 hazi da eta halaber, adineko pertsonen ehunekoa (65 urte baino gehiagokoak), %16,7 da. **Zahartze-indizea 23,7an kokatzen da 2019an**, beraz 3,5 puntu hazi da 2009ko zahartze-indizearekin alderatuta.

BERGARAKO BIZTANLERIA ZAHARTZEN ARI DA, ETA GIPUZKOAKO BATEZBESTEKO KOPURUA BAINO AZKARRAGO

Biztanleria, adinaren arabera. Zahartze-adierazleak

	2009	2019	2019-2009	
			Dif.	%
Guztira	14.707	14.637	-70	-0,5
0 – 19 urte	2.506	2.672	+166	6,6
20 – 64 urte	9.223	8.490	-733	-7,9
≥ 65 urte	2.978	3.475	+497	16,7
Hautzaro indizea (% < 14 urte)	13,0	13,8	0,8	--
Zahartze indizea (% > 64 urte)	20,2	23,7	3,5	--
Gain-zahartze indizea (% > 74 urte)	10,8	12,3	1,5	--

Iturria: EIN eta Eustat. Udalmap

Familiako errenta osoa eta eskuragarria 2017, BERGARA, Gipuzkoa eta EAE

	Errenta osoa		Errenta eskuragarria	
	€	% oinarria 100 EAE	€	% oinarria 100 EAE
BERGARA	46.754	109,9	39.295	104,6
Gipuzkoa	44.943	105,6	37.562	104,7
EAE	42.940	100,0	35.856	100

Errenta pertsonaletik Gizarte Segurantzako eta kontuko atxikipenen kuota likidoaren gastuak kenduta ateratzen da.

Iturria: Eustat.

BERGARAKo **batezbesteko familiako errenta**, Eustatek ematen duen azken datuaren arabera, 2017. urtean **46.754 eurokoa** da, eta familiako errenta eskuragarria erreferentzia gisa hartuz gero, urtean 39.295 €-ra jaisten da.

Horrek, BERGARAKO familiako errentak EAE osokoa baino zertxobait altuagoa dela adierazten du: EAEko errenta osoaren % 109,9 eta familiako errenta eskuragarriaren % 104,6.

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.1.4. DEMOGRAFIA EZAUGARRIAK: BIZTANLERIA, AUZOKA

BERGARATARREN %24-a HERRIGUNETIK URRUN DAUDEN LANDA ZONALDEKO AUZOETAN BIZI DA

Biztanleria, auzoka	2009	2019	2019-2009 Aldak. %
Hirigunea: Alde Zaharra eta Erdigunea	5.621	5.570	-0,9
Auzoak: Bolu-Arane Erreka, San Lorenzo –Zubieta, Zubiaurre-Martxo-Ozaeta-Ibarra, San Antonio –Espoloi, Matxiategi-Santa Marina	5.222	5.534	6,0
Landa eremua: Angiozar, Ubera, Elorregi, Osintxu, Elosua	3.864	3.533	-8,6
Guztira	14.707	14.637	-0,5

Iturria: IINE eta Eustat.

	2009		2019	
	Guztira	%	Guztira	%
1. DISTRITOA	7.387	50,2	7.113	48,6
1.Sekzioa	1.766	12,0	1.543	10,5
2.Sekzioa	1.973	13,4	1.909	13,0
3.Sekzioa	811	5,5	815	5,6
4.Sekzioa	1.040	7,1	1.120	7,7
5.Sekzioa	1.797	12,2	1.726	11,8
2. DISTRITOA	3.832	26,1	4.111	28,1
1.Sekzioa	911	6,2	856	5,8
2.Sekzioa	826	5,6	707	4,8
3.Sekzioa	1.497	10,2	2.548	17,4
4. Sekzioa	598	4,1	-	-
3 DISTRITOA	3.488	23,7	3.413	23,3
1.Sekzioa	1.390	9,5	1.423	9,7
2.Sekzioa	1.073	7,3	1.033	7,1
3.Sekzioa	1.025	7,0	957	6,5
BERGARA	14.707	100,0	14.637	100,0

Iturria: INE eta Eustat.

BERGARA udalerriaren hedapena 75,97 km²-koa da. Biztanleriaren kontzentrazio handiena hirigunean ematen da %75,9: Alde Zaharra eta Bergarako Erdigunean (Ibargarai, Irala...) biztanleriaren %38,1a bizi da eta hiriguneko beste auzoetan (Matxiategi-Sta Marina, San Antonio-Espoloi, San Lorenzo-Zubieta...) bizilagunen %37,8.

Bestetik, urruneko auzo eta landa-zonaldean (Ubera, Elorregi, Angiozar, Osintxu, Elosua...) biztanleriaren % 24,1a kokatzen da, hau da lau biztanletik bat, bertan bizi da.

Eboluzioari begira, azken hamarkadan, biztanleria nahiko egonkor mantendu da, eta aldaketa nagusiak auzoetan eta landa zonaldean ematen diren arren, Eustatek bi urte hauetan egiten duen sekzio banaketa desberdina, biztanleria aldaketa hauek ulertarazten ditu.

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK


2.2. JARDUERA EKONOMIKOA

2.2.1. ENPRESA EHUNAREN BILAKAERA

2019an BERGARAn guztira jarduera ekonomikoa duten 1.034 establezimendu daude (industria, zerbitzuak, merkataritza...), **2009an zeuden establezimendu kopurua baino % 17,3 gutxiago**. Hala ere, jaitsiera hau nahiz eta kontuan hartzekoa izan, txikizkako sektorearena baino apalagoa da (-% 25,8).

Establezimendu kopuruaren jaitsiera hori udalerrian enplegatutako pertsona kopuruaren bilakaera baino altuagoa da: 2008 eta 2019 artean, enplegatuen zenbatekoa % 11,2 jaitsi da (6.654 lagun izatetik 5.905 izatera).

BERGARAKo enpresa-ehuna: establezimendu eta enplegu kopurua (2019).



Iturria: Eustat.

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK


2.2. JARDUERA EKONOMIKOA

2.2.2. ENPRESA SAREAREN BANAKETA SEKTOREKA

Jarduera sektoreka aztertuz, **merkataritza, garraioa eta ostalaritza jarduerak aipagarriak dira, jarduera guztiaren % 37,0 suposatzen baitute** (EAEko jarduera horretako % 37,7ko presentziaren parean hain zuzen).

Ondoren, industria, energia eta saneamendu jarduera nabarmentzen da (% 13), EAEko batezbestekoaren gainetik (% 6,3). Ondoren, jarduera profesional eta laguntzaileen sektorea (% 11,6) kokatzen da. Amaitzeko, eraikuntza (% 10,9) eta administrazioa publikoko jarduerak (% 10,4) kokatzen dira.

Enpresa sarearen banaketa jarduera sektoreka (2019)



Fuente: Eustat.

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.2. JARDUERA EKONOMIKOA


2.2.3. MERKATARITZA TXIKIZKARIA ETA OSTALARITZA: EZAUGARRIAK ETA GARAPENA

Bergarako merkataritza txikizkariaren eta ostalaritzaren sektorea 250 saltokik osatzen dute 2019an, EUSTATen arabera:

- 187 merkataritza txikizkari; horietarik 83k kalean eta 9-k saltokitik kanpo jarduten dute (saltzaile ibiltariak,...).
- 63 Ostalaritza eta jatetxe-establezimendu.

Bilakaerari dagokionez, joera desberdinak bereizten dira. Merkataritza txikizkarian, joera beherakorra ikusi dezakegu, 2009tik 2019ra; merkataritza txikizkaria 252tik 187era murriztu da, hau da -% 25,8a. Gainera, ostalaritzan joera ez da positiboa ezta ere, eta urtetik urtera etengabe jaisten da. 2009an 77 zeuden eta 2019an 63 mantentzen dira. Hamar urte hauetatik, zenbaki baxuena 2019an lortutakoa da.

Enpresak jardura sektoreen arabera (2009-2019)



* Iturria: JEGID (Eustat). Ikus Ikei egindako landako lanaren inguruko 5. Kapitulu zehaztasunez

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.2. JARDUERA EKONOMIKOA

2.2.4. MERKATARITZA TXIKIZKARIA ETA OSTALARITZA: EZAUGARRIAK ETA GARAPENA

BERGARAKo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako sektore osoa % 15,8 murriztu da 2009-2019 aldian. Txikizkako merkataritzari begira, **jaitsiera -25,8%** jaitsiera hau Gipuzkoako batatz besteko jaitsierarekin alderatuta, nabarmenagoa da (-%22,1).

Txikizkako merkataritzari dagokionez, **ohiko merkataritza nagusitzen da** (elikadura, farmazia eta drogeria); izan ere, herriko saltokien % 30,8 hartzen du.

Bilakaerari dagokionez, **jarduera ia guztiek jaitsiera izan dute 2009-2019 aldian, bereziki etxeko horniketan deigarria da.**

Ostalaritzak aldi honetan jaitsiera aipagarria izan du, zortzi jatetxe eta sei edarien establezimendu gutxiago daude Bergaran.

Zerbitzuen sektorea, nahiz eta **-% 6,1eko** jaitsiera izan, azpimarratzekoa da pertsona zerbitzuek izan duten hazkundera %13,8.

Txikizkako eta ostalaritzako establezimenduak, jarduera-adarraren arabera (2009/2019)

Jarduera Lerroak/ Ramas de Actividad	Saltoki Kop/ N° Establecimientos		
	2009	2019	%var
Txikizkako Merkataritza	252	187	-25,8
Ohizko Elikadura	65	55	-15,4
Moda, zapatak, osagarriak	63	39	-38,1
Drog, lurrinkeria, farmazia	10	12	20,0
Etixerako Horniketa	36	18	-50,0
Elektronika, Komunikazioak	13	9	-30,8
Aisia eta Kultura	19	11	-42,1
Ibilgailu eta Erregaien Salmenta	10	11	10,0
Txikizkako beste batzuk	33	26	-21,2
Estbal. Kanpo	3	6	100,0
Ostalaritza	77	63	-18,2
Edangarri establezimenduak	53	47	-11,3
Jatetxeak	24	16	-33,3
Zerbitzu Orokorrak	278	261	-6,1
Ekonomiko-finantza zerbitzuak	97	87	-10,3
Pertsona zainketarako zerbitzuak	80	91	13,8
Etixerako zerbitzuak	22	21	-4,5
Besteak/ Resto	79	62	-21,5
Eskaintza Guztira	607	511	-15,8

Iturria: JEGID, Eustat.

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.2. JARDUERA EKONOMIKOA

2.2.5. MERKATARITZA TXIKIZKARIA ETA OSTALARITZA: BERGARA HURBILEKO INGURUNEAN



Txikizkako eta ostalaritzako eskaintza inguruan, 2019

Inguruko udalerriak	BIZTANLERIA	Merkataritza eta ostalaritza establ.		Dentsitatea (establ. / 1.000 biztanle)	
		Merkata.	Ostalar.	Merkata.	Ostalar.
Bergara	14.637	187	63	12,8	4,3
Antzuola	2.126	17	10	8	4,7
Aretxabaleta	7.128	52	31	7,3	4,3
Arrasate	22.001	261	114	11,9	5,2
Elgeta	1.136	7	5	6,2	4,4
Eskoriatza	4.065	28	24	6,9	5,9
Leintz-Gatzaga	234	1	2	4,3	8,5
Oñati	11.380	116	43	10,2	3,8
Debagoiena	62.707	669	292	10,7	4,7

* Establezimendutik kanpoko jarduera kontuan hartu gabe (saltzaile ibiltariak, vendinga,...)
Iturria: JEGID, EUSTAT

Bergara, Debagoiena Eskualdearen barnealdean kokatzen da, eta bere bertako biztanleria, eskualdeko handienetako bat da, Arrasateren ondoren.

Merkataritza eta Ostalaritza establezimenduei begira, Bergarak pisu nabarmena du eskualde mailan, non Arrasate da, bere gainetik kokatzen den udalerri bakarra. Hala ere, eskualdeko merkataritza-dentsitate handiena lortzen du, Arrasate puntu batean gaindituz (12,8 establezimendu mila biztanle bakoitzeko). Ostalaritza dentsitatean ordea, ez da eskualdeko beste udalerriengandik nabarmentzen.

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.3. JARDUERA TURISTIKO-KULTURALA

BERGARA barnealdeko udalerria da, industrial eta biztanle aldetik tamaina ertainekoa. Gipuzkoako bihotzean kokatuta egoteak, eta azken urteetako beste herri eta hiriekin, hala nola, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Zumarraga eta Beasain errepide konexioen hobekuntzak direla medio, bere posizionamendua nabarmenki hobetu du.

Gaur egun, baliabide turistiko diren hainbat ondare baliabide ditu, udalerriko iragan industrial eta merkataria dela eta.

- Lorategi Historikoak
- Hiltzoriko Kristoa
- Laboratorium Museoa
- Seminarixoa
- Santa Marina azoka
- Agarreko Garaia
- Laureagako Jauregia
- Dolmenen Ibilbidea
- Baserritarren eta bertako produktuen azoka. Oxirondo azoka. (Martxoak 7)

Agenda kulturalaren eta jai-giroko agendaren erakargarritasuna (San Martzial erromeria, Agirreko San Martin jaiak, Erramu Larunbateko Azoka, Mendekoste jaiak) turistentzat nahiz bertakoentzat eskainitako eskaintza-aukera ugariarekin lotuta dago.

Lorategi Historikoak



Agarreko Garaia



Laureagako Jauregia



Santa Marina azoka



Aikhur Museoa



Hiltzoriko Kristoa



Dolmenen Ibilbidea



2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.3. JARDUERA TURISTIKO-KULTURALA

Bergaran hainbat ospakizun eta ekintza antolatzen dira urtean zehar, nabarmenetarikoak:

- Irailaren 16an, San Martin Agirreren omenezko jaiak dira, Azoka, danborrada eta su artifizialekin.
- Ondoren, Bergarako inauteriak ere nahiko ezagunak dira eskualde mailan, ostiral mehea ospatzen den haurren desfilearekin, koadrila eguna larunbatean eta asteartean sardinaren ehorzketarekin.
- Mendekoste jaiak, dantza-txapelketa, txirindularitza-proba, pintura-lehiaketa eta kontzertuekin,
- eta San Martzialeko erromeria, auresku tradizionalarekin ospatzen da.

Hainbat azoka ere egiten dira Bergaran, Erramuen larunbateko azoka (Erramu egunaren bezperan) eta Elosuako ganadu-azoka urriaren 12an. Gainera, urte osoan zehar, musika eta antzerkia egiten dira seminarixoan eta Zabalotegi Aretoko jarduerak ere erakargarritasun nabarmena dauka.

Beste ekintzaile nabarmenak, Musika Eskola (Gabonetako kontzertua, Santa Zezilia kontzertua, Erramu Zapatuko Ferixen eta Iñauterietan egiten dituzten txarangak, dantzak eta abesbatzak...) eta Xaxau elkarteak dira, urtean zehar jarduera desberdinak antolatzen dituztenak. Udalerriko kultur programazioa kulturklik.euskadi.eus, kulturweb.com edo udaletxearen web orrien bidez zabaltzen da. Bertan biltzen dira udalerriko kolektiboek antolatzen dituzten jarduerak eta Udalak antolatzen dituenak.

Agenda

FESTAK	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
Otsailak 19: Inauteriak		XX										
Pazko eguna 49 egun ondoren: Mentekoste festa						XX						
Santuaren egunaren ondoko igandea: San Martzialgo Kultur ekitaldia						XX						
Kultur ekitaldiak	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX
Irailak 16: Agirreko Sa Martín jaiak									XX			
Erramu-igandearen bezpera: Erramu zapatua				XX								
Urriak 12: Elosuako ganadu azoña										XX		
Kirol ekitaldiak	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX	XX
Martxoak 15: Txistularien kontzertua			XX									
Apirilak 25: Elirale Konpainiaren "O!" dantza garaiakidea				XX								
Maiatzak 2: Ainara Ortega ONIN					XX							


2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.4. ERREPIDE SAREA ETA GARRAIO PUBLIKOA

- BERGARA Donostia eta Vitoria-Gasteizetik 50 eta 34 minutura dago eta errepide-sare egokia dauka.
- AP-8: Donostiatik Bilbora autobidea.
- AP-1: Gasteizetik Arrasaterantz autobidea.
- A636 Bergara Beasain koridorea, Autobia berria, 2019. urtean ireki zuten, Zumarraga eta Beasainekin lotzeko bide azkarra, eroso eta segurtasun handiagokoa.

Garraio publikoaren eskaintzari dagokionez, BERGARAK honako hauek ditu:

- **BERGARAKo autobus sarea** (Lurraldebus), Zumarraga autobus lerro bidez komunikatua dago. Bergara>Antzuola>Zumarraga (Zumarraga>Antzuola>Bergara>Antzuola>Zumarraga). Autobusa Amillaga 22 Kalean hasten da, Bergaran, eta Piedad 3 Kalean amaitzen da ibilbidea, Zumarragan. %23ko erabilera du kanpoko lekualdatzeetan (Mugikortasun Diagnostikoaren arabera 2019).
- **Herri-busa:** BERGARAK herri -autobuseko zerbitzu propioa du **urruneko auzoen irisgarritasuna hobetzen duena:** Angiozar, Elosua, Ubera... % 3ko erabilera barneko lekualdatzeetan (Mugikortasun Diagnostikoaren arabera 2019).



2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.5. HIRIGUNEAREN AZTERKETA

2.5.1. LOKOMOTORA URBANO BILAKATU DAITEZKEEN ZONALDEAK

HIRIGUNEAN, LOKOMOTORA URBANO BIHURTU DAITEZKEEN GUNE LIBRE ERABILGARRIAK IDENTIFIKATZEN DIRA.


BERGARAK, bereziak eta atseginak diren hainbat egonaldiko zonalde eta gune desberdinak ditu, eta bertan zenbait dinamizazio-jarduera egiteko aukera eskaintzen dute :

Alde zaharra; paregabeko eraikuntzak eta historia nabarmena duten gune desberdinak aurkitu daitezke, hala nola:

- San Martin Agirre Plaza
- Xabier Munibe Plaza
- Telesforo Monzon Plaza
- ...

Erdigunean ere, aisialdi zonalde desberdinak aurkitzen dira Ibargarai etorbidean barrena (Arrizuaga Parkea, Espoloi, ...) haur-parke ugariekin, D. Irala oinezkoen gune gisa eta baita Fraiskozuri plaza ere.

Gune hauek, lokomotora-urbano bihurtu daitezke, ekitaldi eta ekintza anitzak bertan eginez, gertu dauden merkataritza zonaldeak dinamizatzen laguntzeko.




2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.5. HIRIGUNEAREN AZTERKETA

2.5.2. APARKALEKU PUBLIKOAK

- Guztira Bergaran 2.591 aparkaleku inguru zenbatu dira kalean, 2019ko Mugikortasun Diagnostikoaren arabera.
- Plaza hauetatik, batzuk Aparkaleku mugatu zonaldeetan ezartzen dira, eta besteak ardatz desberdinetan kokatzen diren aparkaleku libreak dira.
- Erdigunetik zehar, aparkaleku mugatuko zonaldeak alde batera utzita, plaza kopuru desberdina duten zenbait aparkaleku multzo identifikatu dira: Madalena (20-30 plaza), Matxiategi (176-180 plaza), S.Arrieta (30 plaza)...
- Ibargarai etorbidearen inguruan, BERGARAKO merkataritza ardatz nagusienak kokatzen dira eta plaza guztien % 20 esparru honetan daude, aparkaleku mugatua eta aparkaleku librea konbinatuz.
- Oxirondo plazan, Merkatu inguruan, 80 plaza zenbatu dira, eta San Martin Agirre Udaletxean, beste 30 plaza, bi gune hauek aparkaleku mugatua dute, iraupen mugatu desberdinarekin.



2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.5. HIRIGUNEAREN AZTERKETA

2.5.3. ARRATSALDEETAN JARDUERA EZ DUTEN ZERBITZUAK

ARRATSALDEETAN ITZALTZEN DIREN GUNEAK


Bergaran, arratsaldeetan jarduera ez duten zerbitzu desberdinen kontzentrazioa nabarmena ematen da zenbait guneetan.

Zehazki, **Ibargarai -Fraiskozuri- Irizar gunean**, 5 finantza entitate zenbatu dira. Honek, goizetan oinezkoen fluxuak handitzen dituen arren, arratsaldeetan duen eragin negatiboa ere aipagarria da.

Beraz, etorkizuneko ezartze berrietan, kontuan hartzeko guneak dira, zerbitzu hauen eragina, bestelako zerbitzu eta merkataritza establezimenduekin indartzeko aukerak sustatuz.

Inguruan dauden eta arratsaldeetan baita itxita dauden beste hainbat zerbitzu publiko ere aurkitzen dira, kontuan hartu beharrekoak:

- Udaletxea
- Epaitegia
- Correos- posta zerbitzua
- Miguel Altuna Eraikina (hutsik)
- María Lagundia Ikastetxea




2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.5. HIRIGUNEAREN AZTERKETA

2.5.4. ESKAINTZAREN IKUSPENEAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK

APARKATUTAKO IBILGAILUAK, EDUKIONTZIAK, HESIAK ETA ARKUPEAK IKUSPEGI URBANOAN INTEGRATZEN DIRA OINEZKOEN BEREHALAKO IKUSPEGIA OZTOPATZEN DUTELARIK




IBARGARAI etorbidean merkataritza establezimenduak, eraikuntzaren morfologiagatik arkupeetan kokatzen dira, beraz hauen erakusleihoen eskaintzaren ikusmena murriztua dago.

IBARGARAI etorbidean merkataritza establezimenduak arkupeetan kokatzearen eraginari, zenbait ibilgailu aurrean edukitzea gehitzen zaie, hau da, arkupeak duten eragin negatiboa areagotuz.



Kruz Gallastegin, Lorategien diseinuak eta aparkalekuek merkataritza establezimenduen eskaintzaren (erakusleihoak) ikuspegia trabatzen dute. Gainera zabor edukiontzien eragina ere oso negatiboa da ardatz honetan.



IRIZAR pasalekua: edukiontzia, hiri ikuspegia trabatuz eta eraikuntzaren morfologiak, merkataritza establezimenduen ikusmena oztopatzen dute.

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.5. HIRIGUNEAREN AZTERKETA

2.5.5. MERKATARITZA ARDATZ NAGUSIA: IBARGARAI

IBARGARAI ETORBIDEAren lehen zatian, Bergarako Ardatz nagusia izanik, bere irudia egoera ezinhobean mantentzeak, lehenetasuna beharko luke. Hala eta guztiz ere, hobetu behar diren zenbait puntu identifikatu dira:

- Espaloi eta zoruaren egoera desegokia: baldosa hautsiak eta lur irristakorra.
- Miguel Altuna eraikina hutsa egoteak eta Pilotalekuaren kokapenak, ardatzaren hozte garrantzitsua eragiten dute (200m), ardatza zatituz eta bere indarra eta potentzialtasuna gutxituz.
- Zabor Edukiontzien irudi negatiboa (kopuru nabarmena ardatzaren erdi-erdian).



Espaloi eta Zoruaren egoera



Edukiontzien eragina ardatz nagusian



Miguel Altuna eraikina hutsik

2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK

2.5. HIRIGUNEAREN AZTERKETA

2.5.6. MERKATARITZA IRUDIAREN KONTRAPUNTUAK

MERKATARITZA IRUDIAREN JARRAIPEN EZA EMATEN DA BERGARAN: SALTOKI BERRITUAK ETA ZAINDUAK, OSO ZAHARTUAK DAUDENEGIN BATERA ELKAR BIZI DIRA.

- Bergaran, merkataritza irudiarekin loturiko zenbait puntu negatibo eta positibo identifikatu dira.
- Oro har, MODA eta ETXERAKO HORNIKETAN (Dekorazioa) dabilzan profesionalek, euren establezimenduak egoera eta irudi onarekin dituzte: erakusleihu erakargarriak, saltoki berrituak, gaur egungo joerekin bat datozenak.
- Bestetik, ELIKADURA SEKTOREAN batik bat, oso zaharkituak dauden saltokiak identifikatu dira, historikoki nabarmenak izan direnak, eta gaur egun oraindik ere, turistikoki erakargarri izan behar dutenak. Baita ere, aipatzekoa da, hobetzeko aukera duten hainbat Txinatar bazar ere, identifikatu direla.




2. BERGARAKO HIRI-GUNEAREN EZAUGARRI ESPAZIALAK ETA IDENTIFIKAZIO PARAMETROAK


2.5. HIRIGUNEAREN AZTERKETA

2.5.7. ERDIGUNETIK KANPOKO AZALERA ERTAINEKO ELIKADURA ESTABLEZIMENDUAK

- Amillaga inguruan, hainbat saltoki handi- ertain egoteak, **Bergarako erdigunea ahultzean eragina du.** **Aparkatzeko gune egokiarekin.**
- Udalerriaren konexio onek bultzatuta, saltoki hauekin batera, kotxea hartuz gero egoiliarren ihesa errazten dute (AP8, AP1, A-636).
- **Elikadura sektorekoak:**
 - ✓ EROSKI CENTER: +1.500 m²
 - ✓ SUPER AMARA; +1.000 m²
 - ✓ DIA MAXI: +850 m²
 - ✓ Ireki berria den SUPERCOR



Eroski Center: 1.737 m² eta aparkaleku propioarekin (+100 plaza) 2007 urtean irekia



MAXI DIA %: 2014 urtean irekia, aparkaleku propioa 900m².

Super Amara: 1. 008 m², ez du aparkaleku propiorik, 2005 urtean irekia.



SUPERCOR: 100m² 2018an irekia.



3.

BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

- 3.1 BERGARAKO MERKATARITZA JARDUERA**
- 3.2 GUNEEN ARABERAKO MERKATARITZA ESKAINTZA**
- 3.3 ENPRESA TXIKIZKARIAK**
- 3.4 MERKATARITZA LOKALEN BETETZE MAILA**
- 3.5 ELKARRIZKETAK BERGARAKO SEKTOREKO
PROFESIONAL EZAGUNEI**
- 3.6 MERKATARITZA GUNEA DINAMIZATZEA**
- 3.7 INKESTA MERKATARIEI ETA OSTALARIEI**
- 3.8 AZOKA BERGARAN**

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.1. BERGARAKO MERKATARITZA JARDUERA

3.1.1 BERGARAKO ESTABLEZIMENDU TXIKIZKARIEN BILAKAERA, JARDUERA ADARREN ARABERA 2009-2019

Jarduera-adarrak	2009		2019		Δ 2019-2009	
	Nº	%	Nº	%	Nº	%
Eguneroko elikadura (harategia, frutategia, arrandegia, supermerkatua,...)	65	10,7	55	10,8	-10	-15,4
Moda, oinetakoak eta osagarriak (poltsak, bitxiak eta erloju-denda)	63	10,4	39	7,6	-24	-38,1
Drogeria, lurrindegia eta farmazia	10	1,6	12	2,3	+2	20
Etxeko hornidura (etxetresna elektrikoak, altzariak, etxeko oihalak, mahai-tresnak,...)	36	5,9	18	3,5	-18	-50
Gainerakoak (bazarra, jostailuak, lore eta landareak, kirol-gaiak...)	78	12,9	63	12,3	-15	-19,2
KALEKO MERKATARITZA, GUZTIRA	252	41,5	187	36,6	-65	-25,8
Tabernak eta jatetxeak	77	12,7	63	12,3	-14	-18,2
OSTALARITZA, GUZTIRA	77	12,7	63	12,3	-14	-18,2
Zerbitzu pertsonalak, ile-apaindegiak, gimnasioa, mediku-kontsultak	199	32,8	199	38,9	0	0
Gainerako zerbitzuak	79	13	62	12,1	-17	-21,5
ZERBITZUAK, GUZTIRA	278	45,8	261	51,1	-17	-6,1
MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK, GUZTIRA	607	100	511	100	-96	-15,8

* Establezimendu finkoa ez duten txikizkako merkataritza ibiltaria ez da kontuan hartzen (saltzaile ibiltariak, online salmenta, vendinga,...)
Iturria: Eustat, JEGID

Bergaran 2009-2019 epean erregistratutako establezimenduen kopuru galerak jarduera-adar guztiei eragin die, drogeria, lurrindegia eta farmaziari izan ezik, 2 establezimendu gehiago baitituzte. Gainera, Zerbitzu pertsonalen kasuan, ez da establezimendu kopurua aldatu.

Establezimendu kopuruaren aldetik eskaintza galtzeak gehien ukitzen dituen jarduera adarrak honako hauek dira: moda, oinetakoak eta osagarriak (24 establezimendu gutxiago) eta etxeko hornidura (etxetresna elektrikoak, altzariak, etxeko oihalak, mahai-tresnak,...) 18 establezimendu gutxiagorekin. % 50eko murrizketa dakar etxeko horniduraren kasuan, eta % 38koa moda, oinetako eta osagarrien kasuan.

Prozesu horren ondorioz, eskaintza-egitura berri bat sortzen da. Guztira, aztertutako Bergarako 96 saltoki, ostalaritza eta zerbitzu gutxiago daude, eta honek -% 15,8ko murrizketa suposatzen du.

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.1. BERGARAKO MERKATARITZA JARDUERA

3.1.2 MARKO OROKORRA. BERGARAKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ESKAINTZA OROKORRA

Gaur egun, BERGARAn guztira **500** establezimendu daude: **212** merkataritza txikizkari*; ostalaritzako eta jatetxeetako **95** establezimendu eta **193** zerbitzu orokor.

Txikizkariaren sektoreko jarduera nagusia gainerakoei loturikoa da, 70 establezimendu baititu, hau da, eskaintzaren % 14,0a. Jarraian elikadura freskoa dator, 61 establezimendurekin eta txikizkako eskaintzaren % 12,2arekin. Moda-establezimenduek % 9,4 hartzen dute.

Ostalaritzaren pisua ere esanguratsua da BERGARAKo eskaintzan, 95 establezimendu baititu orotara, % 19a. Halaber, Zerbitzuek % 38,6a dute.

Jardueraren arabera BERGARAKo merkataritza eta ostalaritza establezimenduak

Jarduera	BERGARA		
	Establezimenduak	%	% Saltokiak
Eguneroko elikadura (harategia, frutategia, supermerkatua,...)	61	12,2	28,8
Drogeria, lurrindegia eta farmazia	9	1,8	4,2
Moda, oinetakoak eta osagarriak (poltsak, bitxiak eta erloju-denda)	47	9,4	22,2
Etxe hornidura (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxe ehungintza...)	25	5,0	11,8
Gainerakoak (bazarra, jostailuak, lore eta landareak, kirol-gaiak...)	70	14,0	33,0
KALEKO MERKATARITZA, GUZTIRA	212	42,4	100,0
Tabernak eta Jatetxeak	95	19,0	
OSTALARITZA, GUZTIRA	95	19,0	
Zerbitzu pertsonalak, ile-apaindegia, gimnasioa, mediku-kontsultak	51	10,2	
Ekonomiko Finantzarioak (bankuak, aseguruak...)	41	8,2	
Etxeak (tindategiak, konponketa,...)	40	8,0	
Gainerako zerbitzu orokorrak	61	12,2	
ZERBITZUAK, GUZTIRA	193	38,6	
MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK GUZTIRA	500	100,0	


* Establezimendu finkoa ez duten txikizkako merkataritza ibiltaria ez da kontuan hartzen (saltzaile ibiltariak, online salmenta, vendinga,...)

Iturria: IKEI-ren landa-lana eta GISCOM.

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA

3.2.1 EREMU NAGUSIAK



Jarraian, BERGARAn dauden zerbitzu eta merkataritza saltokien inguruan **Ikei** egindako azterketa dator zehaztuta. Informazio hau landu da:

- Txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren eta jatetxeen hornidura eta kalean garatzen diren beste jarduera batzuk.
- Baita lokal hutsak ere; inguruko merkataritzaren egoera eta inguru urbanoko merkataritza lokalak hutsik egoteak eragindako arazoak baloratzeko.

Horretarako, BERGARA 3 eremutan banatu da, kasuan kasuko azterketa egiteko.

Lana garatzeko erabili den iturri nagusia kalean egindako landa-lana izan da, eta baita GISCOM, Eusko Jaurlaritzaren datu basea ere.

Emaitza beste iturri batzuetako informazioarekin osatu da (Alimarket, BERGARAKO Udala).

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA

3.2.2 ERDIGUNEKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ESKAINTZA (1. ETA 2. EREMUAK)

BERGARAKO Erdigunean eta Alde Zaharrean (1 eta 2 eremuak) kontzentratzen da udalerriko merkataritzako eta ostalaritzako jarduera gehiena: 129 establezimendu txikizkari, 43 taberna eta jatetxe eta 66 zerbitzu orokor kokatzen dira bertan.

Nabarmentzekoa da udalerri osoa kontuan hartuta:

- Establezimendu txikizkarien (% 54,2), Zerbitzuen (27,7%) eta Ostalaritzako (% 18,1) establezimenduen arteko banaketa mantentzen dela. Gainera, merkataritzak duen pisua indartu egiten da bi eremu hauetan, udalerri osoarekin alderatuta.

Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduak ERDIGUNEAN (1 ETA 2 EREMUAK)


Jarduera	Establezimendu kopurua	%	% Saltokiak
Eguneroko elikadura (harategia, frutategia, arrandegia, supermerkatua,...)	33	13,9	25,6
Drogeria, lurrindegia eta farmazia	7	2,9	5,4
Moda, oinetakoak eta osagarriak (poltsak, bitxiak eta erloju-denda)	42	17,6	32,6
Etxeko hornidura (etxetresna elektrikoak, altzariak, etxeko oihalak, mahai-tresnak,...)	8	3,4	6,2
Gainerakoak (bazar...)	39	16,4	30,2
KALEKO MERKATARITZA, GUZTIRA*	129	54,2	100,0
TABERNAK ETA JATETXEAK, GUZTIRA	43	18,1	
ZERBITZUAK, GUZTIRA	66	27,7	
MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK, GUZTIRA	238	100,0	

* Ez da kontuan hartzen salmenta finkoa egiten ez duen txikizkako merkataritza ibiltaria (saltzaile ibiltariak, online salmenta, vending...) Iturria: bertan eginda, IKEI-ren landa-lanaren eta BERGARAKO merkatarien elkarteak emandako datuen arabera.

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA

3.2.2 ERDIGUNEKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ESKAINTZA (1. ETA 2. EREMUAK)



- 1. ETA 2. EREMUKO BERGARAKO SALTOKIEN 34,6%-AK EZ DU AKTIBITATERIK, (149 SALTOKI).
- HAUETATIK, ERDIA ALDE ZAHAR INGURUAN, 2. EREMUAN, KOKATZEN DA (% 52,3).
- JARDUERA DUTENEN ARTEAN, GEHIENGOA MERKATARITZA-SALTOKIAK DIRA (GUZTIRA 129).

1 eta 2 Eremuak

Mota	Nº	%
Merkataritza	129	29,9
Ostalaritza	43	10,0
Zerbitzuak	110	25,5
JARDUERA DUTENAK	282	65,4
Hutsik daudenak	149	34,6
GUZTIRA	431	100,0

Iturria: Giscom

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA

3.2.3 ERDIGUNEKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ESKAINTZA (1A ETA 1B EREMUAK)

1. EREMUA: ERDIGUNEA:

BERGARAKo merkataritza-ardatz garrantzitsuen osatzen du.

Establezimenduak, modu naturalean mugitzen joan dira eremu honetako kale nagusirantz: **IBARGARAI merkataritza-ardatzera.**

Zonalde honetan bi eremu desberdintzen dira:

- **1A EREMUA:** Ibargarai hiribidearen erditik gora (1-13/2-30), Kruz Gallastegi kale ingurura arte. Bertan merkataritza establezimenduak nagusitzen dira.
- **1B EREMUA:** Ibargarai hiribidearen erditik behera (15-45/32-56), Torrekoa plazara arte. Eremu honetan barneratzen da Oxirondo Plaza ingurua ere. Eremu honetan beriz, zerbitzuak nagusitzen dira, batez ere pertsona zainketan aritzen direnak.

1A EREMUA:
Ibargarai-Kruz
Gallastegi

1B EREMUA:
Ibargarai-Torrekoa
eta Oxirondo

Merkataritza

Ostalaritza

Beste jarduerak

Lokal Hutsak



3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA


3.2.3 ERDIGUNEKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ESKAINTZA (1A ETA 1B EREMUAK)

1A.Eremua: ERDIGUNEA

Merkataritza-eremu nagusia. Saltokien okupazio maila handiena duen gunea da (% 80,6), lokal hutsak 144 establezimendutatik soilik 28 izanik. Merkataritza saltokiak dira nagusi (gutzizkoaren % 38,9) eta gehiengoa Ibargarai ardatzean kokatzen da.

1B.Eremua: ERDIGUNEA


Zerbitzuak nagusitzen dira bertan eta 1.A eremua baino merkataritza-gune apalagoa da. Nahiz eta lokal hutsen presentzia nabarmena izan (80 lokal posibletik 43 hutsik daude), kontuan hartu behar da eraikin berriak daudela bertan, eta obrako lokal asko direla hutsik daudenak, hortaz, ez dute jarduerarik izan. Hala ere, sustatu beharreko eremua da.



3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA

3.2.4 1. EREMUKO ARDATZ NAGUSIAK



3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA

3.2.5 MERKATARITZAKO ETA OSTALARITZAKO ESKAINTZA 2.EREMUAN


2. EREMUA: ALDE ZAHARRA:

Ardatz honetan kontzentratzen dira BERGARAKo hirigune historikoko kaleak. Zerbitzu publiko nagusienak ere bertan daude (Udala, Epaitegia, San Pedro parrokia...).

Merkataritza-gune gisa duen garrantziari dagokionean, **BARRENKALEA eta BIDEKURUTZETA** kalea nabarmentzen dira (39 eta 28 saltoki aktibo dituzte, hurrenez hurren). Hauek dira 2. eremuko ardatz nagusienak.

Bestalde, **lokal huts kopurua ere aipagarria da** (207 establezimendutatik 78 hutsik daude, % 37,7). Bereziki nabarmena da **Artekalea** ardatzaren eta **Pedro Deuna** ardatzaren egoera, saltokien erdia baino gehiago hutsik baitaude (% 56 eta % 52, hurrenez hurren).

Udalerriko lokal huts guztien artean, %52,3-a Alde zaharrean kokatzen da: Beraz lehentasun gehien duen zonaldea da.




3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA


3.2.6 BIGARREN EREMUKO ARDATZ NAGUSIAK

- **2. eremuko ardatz dinamikoena** da BARRENKALEA, 49 establezimendu daude guztira.
- Bertan kokatzen diren establezimendu gehienak aktibo daude (gutzizkoaren % 79,6, hau da, ia 10etik 8).
- Hortaz, hutsik dauden lokalen proportzioa nahiko txikia da (20,4%), nahiz eta hobekuntzarako marjina dagoen: kale honek duen kokapena ikusita, jarduerarik burutzen ez duten saltokien ehunekoa 0-ra gerturatu beharko litzateke.
- Lehentasunezko eremua da beraz.
- Aktibo dauden saltokien artean gehienak merkataritza establezimenduak dira (19), eta ostalaritza eta zerbitzuek hamarna lokal dituzte.



BARRENKALEA

MOTA	Nº	%
Merkataritza	19	38,8
Ostalaritza	10	20,4
Zerbitzuak	10	20,4
AKTIBO GUZTIAK	39	79,6
Hutsik daudenak	10	20,4
GUZTIRA	49	100




Iturria: Giscom

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA

3.2.6 BIGARREN EREMUKO ARDATZ NAGUSIAK

- BIDEKURUTZETA kalea **alde zaharreko bigarren ardatz dinamikoena** da.
- Guztira, 41 establezimendu daude, eta 10 lokaletatik ia 7k jardueraren bat burutzen dute.
- Sektoreka, merkataritza saltokiak dira nagusi (14), ondoren zerbitzukoak (9) eta azkenik taberna eta jatetxeei dagozkienak (5).
- Mapari begiratuz gero, argi eta garbi geratzen da luzera handiko kalea dela BIDEKURUTZETA, eta hortaz, ulargarria da lokal kopuru handia izatea.
- Lokal hutsek guztizkoaren % 31,7 hartzen dute, baina gehiengoa kalearen erditik behera kokatzen da (Maria Lagundia Ikastola aldera); hau da, alde zaharraren mugar.
- Ondorioz, lehentasunezko eremu bezala kontsideratzen da, baina udaletxe alderago dauden lokalen artean okupazio-maila ia erabatekoa da (19 lokaletatik 3 soilik daude hutsik, aldiz, beste eremuan 22tik 10 dira lokal hutsak).



BIDEKURUTZETA

MOTA	Nº	%
Merkataritza	14	34,1
Ostalaritza	5	12,2
Zerbitzuak	9	22,0
AKTIBO GUZTIAK	28	68,3
Hutsik daudenak	13	31,7
GUZTIRA	41	100

Comercios
Hostelería
Otras actividades
Locales vacíos

Iturria: Giscom

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2. GUNEEN ARABERAKO BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZA

3.2.6 BIGARREN EREMUKO ARDATZ NAGUSIAK



- Alde Zaharreko ardatz dinamikoenaren (Barrenkalea) kale paraleloa da ARTEKALEA.
- Bergarako Udala eta parrokiaren artetik doa kalea (hirigune historikoa).
- Hala ere, merkataritza-egoera ez da batere positiboa (lokal huts gehiegi).
- Jarduera eta dinamismo beharra du, duen erdiguneko kokapena dela-eta.
- Udalerriko sarrera-ate nagusietako bat.

Artekalea

MOTA	Nº	%
Merkataritza	6	24,0
Ostalaritza	2	8,0
Zerbitzuak	3	12,0
JARDUERA DUTEN GUZTIAK	11	44,0
Hutsik daudenak	14	56,0
GUZTIRA	25	100,0

Iturria: Giscom



Artekaleko zenbait lokal huts

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.2.7 ERDIGUNEKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ESKAINTZAREN XEHETASUNA (1 ETA 2 EREMUAK)

MERKATARITZAKO, OSTALARITZAKO ETA BESTE JARDUERA BATZUETAKO ESKAINTZA, AZPIEREMU ETA ARDATZEN ARABERA

Merkataritza ardatz nagusiak:

1. A EREMUA: ERDIGUNEA

Establezimendu kopuru handieneko ardatza **Ibargarai** da. Lehenetsuna du, duen kokapena dela-eta, txikizkako merkataritza nagusitzen da bertan. Aipatzekoak ere D.Irala eta Fraiskozuri ardatzen garrantzia.

1. B EREMUA: ERDIGUNEA

Merkataritza-ardatz nagusia, **Ibargarai** da eta bertan zerbitzu establezimenduak nagusitzen dira; zainketa pertsonalekoak batik bat.

2. EREMUA: ALDE ZAHARRA

Barrenkalea eta **Bidekurutzeta** dira establezimendu gehien dituzten ardatzak, beraz zonaldeko nabarmenenak.

ARDATZA	Jarduera duten establezimenduak (kop)				Txikizkako % Eremuan	Metro linealak gutxi gorabehera	Merk./Ostal. x Metroko	Lehenetsu na
	Merk. txikizkaria	Ost./Jat.	Zerb.	Guztira				
1 A EREMUA: ERDIGUNEA	56	19	41	116	41,1	--	--	--
Ibargarai (1-13, 2-30)	23	1	19	43	15,2	322	0,0745	1
D. Irala	10	5	1	16	5,7	174	0,0862	1
Fraiskozuri	5	4	8	17	6,0	155	0,0581	1
Irizar	6	1	1	8	2,8	246	0,0285	2
Simon Arrieta	3	5	2	10	3,5	111	0,0721	2
Zurradero	3	1	6	10	3,5	133	0,0301	2
Beste kaleak	6	2	4	12	4,3	--	--	--
1 B EREMUA: ERDIGUNEA	16	2	19	37	13,1	--	--	--
Ibargarai (15-45, 32-56)	6	0	13	19	6,7	313	0,0192	1
Oxirondo	8	0	4	12	4,3	130	0,0615	2
Beste kaleak	2	2	2	6	2,1	--	--	--
2. EREMUA: ALDE ZAHARRA	57	22	50	129	45,7	--	--	--
Barrenkalea	19	10	10	39	13,8	183	0,1585	1
Bidekurutzeta	14	5	9	28	9,9	253	0,0751	1
Pedro Deuna	9	0	3	12	4,3	206	0,0437	1
Artekalea	6	2	3	11	3,9	107	0,0748	2
Beste kaleak	9	5	25	39	13,8	--	--	--
GUZTIRA: 1 eta 2 EREMUAK	129	43	110	282	100	--	--	--

Iturria: bertan eginda, IKEI-ren landa-lanaren eta BERGARAKo merkatarien elkartek emandako datuen arabera.

3. BERGARAKO MERKATARITZA ESKAINTZAREN AZTERKETA

3.3 ENPRESA TXIKIZKARIAK

3.3.1 ELIKADURA LIDERREN PRESENTZIA

ELIKADURAN LIDER DIREN KATEEN PRESENTZIA NABARMENA DA, bai Bergaran eta baita ondoko herrietan ere. Azalera erdiko 3 establezimendu daude Bergaran, eta dauden 9 elikadura autozerbitzu eta kateek orotara 5.778 m2 dituzte.

Arrasate eta Oñati dira lehiatzaile nagusiak: lehenak, 8 establezimendu ditu eta bigarrenak, aldiz, 4. Azpimarratzekoa da nahiz eta saltoki kopuruan BERGARA gailendu, azalerari dagokionean ARRASATE dela nagusi, 11.808 m2-ko azalerarekin (Bergararen bikoitza).

Bergarak, ordea, badu zertan bereizi:

- Alde batetik, azken 5 urteetan herriko erdigunea indartu da, bi establezimendu nabarmenekin 1.300 m2 Eroski eta 300 m2 DIA % batekin.
- Bestetik, Elikadura kate txiki dibertsifikatuagoak ditu, ondoko herrietan ez daudenak, hala nola, Aliprox, La Kompra eta Ugari.

Merkataritza Katea	BERGARA		ARRASATE		OÑATI	
	M ² /(kop)	Balioa	M ² /(kop)	Balioa	M ² /(kop)	Balioa
HIPER EROSKI	--	●●●	6.536 (1)	●●●	--	●●●
BM/SUPER AMARA	1.008 (1)	●●●	2.030 (2)	●●●	335(1)	●●●
LIDL	--	●●●	1.250 (1)	●●●	--	●●●
EROSKI CENTER/CITY	3.009 (2)	●●●	929 (1)	●●●	1.494 (2)	●●●
DIA %	1.181 (2)	●●●	998(2)	●●●	325 (1)	●●●
LA KOMPRA	250 (1)	●●●	--	●●●	--	●●●
ALIPROX	160 (1)	●●●	--	●●●	--	●●●
UGARI	110 (1)	●●●	--	●●●	--	●●●
COVIRAN	60 (1)	●●●	145 (1)	●●●	--	●●●
1. Herriko komertzio, ostalaritza negozio eta zerbitzuei diru-laguntza zuzenak emateko 300.000 euroko partida. Negozioa berriz martxan jarri eta berraktibatzen laguntzera bideratuta dago. Laguntza horrek balioko du hemendik aurrerako ibilbidean negozio bakoitzak ikusten dituen beharrei aurre egiteko.

2. Herriko ostalaritza negozioei terrazak handitzeko eskaintza eta tasetan aldaketak. Terrazak handitzeko eskaerak banan-banan aztertuko dira Hirigintza departamentuan .

3. Bertako turismoa indartzeko 30.000 euroko partida onartu da. Bergarak erakusteko asko dauka, altxorrez beteta dago, eta Udalak ahalegin gehigarri bat egin nahi du bisitari gehiago erakartzeko. Eta, horren bidez ere, gure negozioei beste bultzada gehigarri bat emateko.

4. Herriko komertzio, ostalaritza negozio eta zerbitzuetan gastatzeko 44.000 euro bideratu ditu Udalak, Kuttuna.org plataformaren bonuen bitartez. Kuttuna.org plataformaren bitartez Udalak herriko negozioei aukera eman die bere produktu edo zerbitzuak eskuragarri jartzeko; eta herritarrek aukera dute %80ko kostuarekin produktuak eskuratzeko. Erosketa bakoitzaren %20 Udalak finantzatu du. 44.000€ bideratu ditu ekimen horretara: 40.000 erosketak finantzatzeko eta 4.000 transakzio gastuak ordaintzeko.

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA. UDAL LAGUNTZA (EKON-FIN ETA BESTELAKOAK)

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.1.2 Zerga eta tasak (Hobariak)

HELBURUA:

COVID-19ren ondorioz bizi dugun egoera jasateko, bat bateko laguntza ekonomikoa eta finantzarioa eskaintzea, Bergarako enpresa eta establezimendu txikiei.

JUSTIFIKAZIOA eta EKINTZAK :

Covid19 birusak eragindako krisiaren ondorioz bergarar askok bizi duten egoera ekonomiko zailaren aurrean, Bergarako Udalak udal tasa eta zerga ezberdinen ordainketak eten egingo ditu, gutxienez alarma egoera bukatu bitartean. Modu horretan, kaltetueenei lagundu nahi die Udalak.

Ogasun batzordeak, honako erabakiak hartu ditu:

-**Ura eta zaborraren tasen ordainketa gutxienez uztailaren 30era arte etetea.** Honek ur tasetan 36.000 euroko inpaktua izango duela aurre-ikusten da, eta 10.000 eurokoa hondakinetan. Neurri guzti horiek, terrazen tasetan izango diren moldaketak kontuan hartu barik, 581.000 euroko eragina izango dute herriko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan.

- **Ostalaritzari terrazen tasarik ez kobratzea alarma egoerak irauten duen bitartean.**

-**Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea abenduaren 30era arte zabaltzea.**

-**Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko epea irailaren 15era arte zabaltzea.**

-**Azoka eta azoka txikiko postuen tasarik ez kobratzea alarma egoerak irauten duen bitartean** (1. hiru-hilabeteko ordainketa uztailaren 30era arte zabaltzea).

-**Agorrosin kiroldagiko abonua eta ikastaroetako tasarik ez kobratzea apirilaren 1etik eta itxita dagoen bitartean** (urteko abonatupei parte proportzionala itzuliko zaie).

-**Udalak alokairuan dituen tabernei (Agorrosin eta Labegaraieta) alokairurik ez kobratzea alarma egoerak irauteen bitartean eta derrigorrean itxita dauden bitartean.**



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA. UDAL LAGUNTZA (EKON-FIN ETA BESTELAKOAK)

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

7.1.3 Aholkularitza zerbitzua

HELBURUA:

COVID-19ren ondorioz bizi dugun egoeraren ondorioz, enpresa eta establezimenduak babesteko eta bizi duten egoera larrian lagunduta sentitzeko, aholkularitza zerbitzua antolatu da.

JUSTIFIKAZIOA:

Gaur egun bizi dugun egoera larria dela medio, COVID-19ren ondorioz, enpresa eta establezimendu ugari, bere negozioen itxiera edo salmenten jaitsiera zorrotza bizi izan dute.

Errekuperazio ekonomikoa iristen den bitartean, bidea arinago egiteko, Bergarako udaletik aholkularitza zerbitzua martxan jarri da, diru-laguntza eta hobari guztien berri emateko, eta baita deseskalada prozesuaren inguruan egon daitezkeen zalantza guztiak argitzeko.



EKINTZAK:

• AHOLKULARITZA ZERBITZUA MARTXAN JARRI DA:

- Webgunetik (bergara.eus)
- Telefonotik
- Arreta presentziala.
- Kezka eta zalantza indibidualak edo puntualak erantzuteaz gain, aholkularitza zerbitzuaren jarduera nagusia, informazio orokorra biltzea izan da. Egoiliarrek, eta profesionalak eskuratu ditzaketen laguntza guztiak barneratuz; bai udal, bai eskualde, edo eta lurralde mailakoak.
- Mantendu zerbitzu hau COVIDen egoera gainditu ondoren Udalerriko saltokiei salmentarako eta publizitaterako bide berriak erraztea eta horiei buruz aholkatzea, prestakuntza- eta teknologia-baliabideen bidez.



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA. UDAL LAGUNTZA (EKON-FIN ETA BESTELAKOAK)

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.1.4 Eskariaren sustapena (Bonoak eta sentsibilizazio kanpainak)

HELBURUA:

Eskariaren sustapena eta herriko establezimenduak laguntzeko bertako kontsumoa areagotzea.

JUSTIFIKAZIOA:

Covid-19ren ondorioz, enpresa eta establezimendu txikien salmentak beheraka egin dute, eta bertako kontsumoa areagotzeko, martxan jarri dira zenbait ekimen:

1)Bono kanpaina: Kanpaina hau, maiatzean hasi da, eta Udalak 20.000 euroko hasierako poltsa sortu zuen www.kuttuna.org webguneak bultzaturiko erosketa bonuen bitartez herriko merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu sektoreko negozioak laguntzeko. Astebeteko epean agortu ziren 100.000 euro balioa zuten erosketa bonoak, eta beste 20.000 euro gehitu ditu Udalak ekimenara. Hala, epe labur honetan herritarrek primeran erantzun dute eta dagoeneko agortu da kuttuna.org plataformaren bidez bertako negozioetan produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera. Horrela, herritarron eta udalaren laguntzarekin 200.000 eurotako bultzada jaso dute Bergarako establezimenduek.

2)Sentsibilizazio kanpaina:Herriko komertzio, ostalaritza negozio eta zerbitzuei babesa eman eta herritarrak kontzientziazteko sentsibilizazio kanpaina martxan dauka Udalak 5.000 euroko partidarekin. Bideo indibidualak grabatu dira, berrogeialdia bizi izan dugun epean, bertako saltokiak agertu dira. ARTEMAN-enpresaren eskutik. Bideo hauen helburua, eskariari hurbiltzea eta mezu solidario bat bidaltzea izan da.



EKINTZAK:

- **BONO KANPAINA:**
 - **HASIERAKO 20.000€KO UDAL DIRU LAGUNTZA ETA EPE LABURREAN BESTE 20.000€KO PARTIDA GEHITU DU UDALAK EKIMENERA.GAINERA 4.000€ TRANSAKZIO GASTUENTZAT.**
 - **GUZTIRA KONTSUMOAN 200.000€KO BULTZADA IZAN DUTE HERRIKO ESTABLEZIMENDUEK (%20 udalak jarri du).**
- **SENTSIBILIZAZIO KANPAINA:**
 - **BIDEO INDIBIDUALAK ESKARIARI ETA EGOLIARREI HURBILTZEKO (Hurrengo diapositiban sakontzen da).**

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA. UDAL LAGUNTZA (EKON-FIN ETA BESTELAKOAK)

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.1.4 Eskariaren sustapena (Bonoak eta sentsibilizazio kanpainak)

SENTSIBILIZAZIO KANPAINA: “HERRIKO KOMERTZIOA BERGARAREKIN, BERGARA, HERRIKO KOMERTZIOAREKIN”

HELBURUA:

Sentsibilizazio kanpainaren helburua, eskariari hurbiltzea eta mezu solidario bat bidaltzea izan da. Apirila erdian abiarazi zuen Udalak, ‘Herriko komertzioa Bergararekin, Bergara herriko komertzioarekin’ izeneko sentsibilizazio kanpaina. Herriko negozio guztiei aukera eman eta Bedelkarrekin elkarlanean, 23 negozioren ahotsa jaso eta zabaldu du Udalak sare sozialetan dituen kanalen bitartez, hor daudela eta jarraituko dutela gogoratuz. Kanpainak ekintza desberdinak batzen ditu, batez ere ikus-entzunezko formatuan eta sare sozialak erabiliz. Horren baitan kokatzen da, baita ere, Oxirondo azokako saltzaile eta ekoizleen ikusgarritasuna handituko duen ekimena.

EKINTZAK:

• **KANPAINAREN MEZUA ZABALDU: Facebook, Twitter, Instagram eta Whatsapp-en zabaldu.**

Irudi bat sortu da. ‘Herriko komertzioa Bergararekin, Bergara herriko komertzioarekin’

Jarri balioan daukaguna,

Jarri balioan aberasten gaituena.

- **BIDEO INDIBIDUALAK** herriko komertzianteez etxean egindako bideo motzak Facebook, Twitter, Instagram eta Whatsapp-en zabaldu. Segundu gutxitako edo minutu eskaseko **bideo kaseoak**, etxean grabatuta...
Mezua: “..... XX urte daramagula herriari zerbitzua ematen, garai desberdinak pasatu ditugula eta orain ere guztion artean lortuko dugu....” Negozio mota partaide desberdinak ahalik eta gehienak, banaka, binaka nahi den bezala.
Inplizituki adierazi nahi diren mezuak: “Hemen gaude, Gutaz akordau”. “Lanean jarraitu dogu dendak itxita egon arren, jarrera proaktiboa, aurrera begira”. “Danon artean egin behar dogu aurrera.”
Euskaraz eta gazteleraz egin dira.
Bideoek kanpainaren irudia eraman dute eta sare sozialetan zabaldu dira.
- **PUNTUAZIOAK EMAN NEGOZIOEI:** Herritarren eta bezeroen partaidetza bilatu, Bergarako negozioei elkartasun mezua eta herriko negozio bakoitzari 5 izarreko puntuazioa emateko deia egin da . Erabilitako tresna: Googlemaps.
- **KANPAINA AMAITZEKO:** bideo bat egingo da herriko komertzianteez jasotako elkartasun mezuak batuta, etxean grabatutako bideo motzekin, eta herriko komertzioa babesteko arrazoi horiekin. Mezua: guztion artean batera aurrera egingo dugu!

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA. DIGITALIZAZIOA

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.2.1 Plataforma digitalak

HELBURUA:

Komertzio eta Ostalaritza establezimenduen produktuak eskaini, online munduan mugitzen den publiko zabalago bati.

JUSTIFIKAZIOA:

Gaur egun egoiliarren %35a online erosten duela esan du Bergaran 2020ko otsailean egindako inkestetan, ehuneko hori, gero eta altuagoa izango da datorren hilabete eta urteetan. Gainera, COVID-19ren ondorioz, kontsumitzaileen portaera eta joera hau, bizkortu besterik ez da egin:

Alde batetik, saltokiak itxita egon dira, eta plataforma digitalak eta establezimenduen webguneak izan dira “gune bakarrak” produktuak lortzeko. Orain eszenatoki berri baten aurrean gaude, kontsumitzaileak eta kontsumitzeko era, guztiz aldatu dira: deseskalada faseekin, distantziamendua, ordutegiak, higiene neurri berriak direla eta...produktuak lortzeko mundu digitalak oraindik pisu handia edukiko du.

Bestetik, bertako kontsumoak, jasangarritasunak eta konpromisoak, indar handia hartu du gizartearen, beraz aukera ona da, herrietako saltokiak digitalizaziorantz abiatzeko, egoiliarrek online erosi nahi dutelako, baina, norbere herrietako komertzio eta ostalaritzan.

EKINTZAK:

- **AUKERA DESBERDINAK PLANTEATZEN DIRA:**
 1. Alde batetik: PLATAFORMA DIGITAL PROPIOA EGIN/GARATU.
 2. Bestetik: EXISTITZEN DEN BESTE PLATAFORMA BATEKO PARTAIDE IZAN. (Bonoekin egin den bezala Kuttuna.org). Hemen adibide desberdinak daude Estatu mailan, plataforma berean hiri desberdinetako komertzioak bateratuz.).
- **ONLINE KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA SENDOTU:** Egiten diren ekintzak komunikatu, batez ere sare sozialak erabiliz.



Propioak:



Partekatuak:



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA. DIGITALIZAZIOA

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.2.2 Etxez etxeko banaketa zerbitzua

HELBURUA:

Plataforma digital desberdinetan saltzen diren produktuak, bezeroari gerturatu. Etxez etxeko banaketa zerbitzua

JUSTIFIKAZIOA:

Kontsumitzaileak eta retail sektoreak bizi duen egoera aldakorrek, online mundura eta erosotasunera begiratzen du.

Momentuan kontsumitu, erosi eta jaso nahi ditugu produktu eta zerbitzuak, era eroso batean, etxetik mugitu gabe. Gainera, COVID-19ren ondorioz, kontsumitzaileen portaera eta joera hau, bizkortu besterik ez da egin, berrogeialdia eta konfinamenduarekin batera, herrietako establezimenduetara joateko aukera kendu zaigu, beraz, online erostea eta etxean jasotzea, izan da saltzeko bide bakarra establezimendu askorentzat.

EKINTZAK:

Aukera desberdinak egon daitezke:

1. Etxez etxeko BANAKETA PROPIOA egin, Durango edo Donostiaren esperientzia jarraituz.

2. HIRUGARRENGO BATEKIN GARATU (Correos, Globo...) edo antzerako enpresa batekin (kosteak ondo kalkulatu eta aurrera egin) .



DURANGO

Durangkoko DENDAK BAI Merkataritza elkartearen bitartez, udalaren laguntzarekin, banaketa zerbitzu propioa ezarri da. 2013 urtetik dago martxan zerbitzua, pertsona bat kontratatuz, asteko hiru egunetan, zerbitzua herrian emateko. 2019ko abendutik aurrera, bizikleta elektriko baten laguntzarekin, zerbitzua handitu da: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta larunbatetan 17:00etatik 20:00etara erabiltzeko aukera dago.



DONOSTIA

Donostian, FOMENTO SS-en eskutik TXITA enpresa jasangarriarekin kontratatatu da etxerako zerbitzu berria. Ezaugarriak:

- Paketeak (fruta, elikadura eta loreak barne).
- Ez dira izoztuak edo elikagai beroak banatuko.
- 5€ko tarifa egun batetik besterako banaketan (beza barne) 15kilorainoko paketeetan.
- Goizeko 9htatik gaueko 21hra astelehenetik larunbatera.
- Zerbitzu jasangarria, ibilgailu elektrikoekin egiten dena.

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA. LOKAL HUTSAK / TRANSMISIOA

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.3.1 Lokal hutsen irudia eta okupazioa hobetzea lehentasunezko kaleetan

HELBURUA:

HIRI-BILBEAREN BERRESKUPERAPENA ETA LOKALEN DINAMIZAZIOARI LAGUNTZEA, BEREZIKI IPARRAGIRRE-ALDE ZAHARRA INGURUNEAN.

JUSTIFIKAZIOA:

LOKAL HUTSEK HIRI-PAISAIA ETA GAINONTZEKO TXIKIZKARIEN ESKAINTZA GIROAN ERAGINA DUTE

- Lokal hutsen hedapena, hiri eta udalerri askotan etengabe ematen ari den fenomeno da. Hau dela eta, badira, Tolosa, Ordizia, Urretxu edo Barakaldo bezala, esku-hartze publikoa ematen ari den beste hiri eta udalerriak (Apainketa Artistikoa, Lokal Hutsetarako Udal-Alokairuak...)
- Erreferentzia.** Bergarak, eskualdean, aurrea hartzeko eta erreferentzia bihurtzeko aukera du.
- Proiektzioa.** Ekintza honek, eskualde mailako komunikabideetan eragin nabarmena izateko aukera.
- Erakartzen du.** Garatuko diren jarduera berritzaileek hauek ezagutzeari buruzko jakin-mina sortzen dute.
- Ekintzaileak.** Jarduera ekonomikoa sustatzen du, auto-enplegua sortzen du ekintzaileen artean, eta era berean, lokal hutseko jabeek bere lokalen ikusgaitasuna handituta ikusten dute.
- Indartzen du.** Erdigunea eta merkataritza-gunea indartu, dinamizatu eta zabaltzen ditu, lehentasunezko kaleetako eta alboko establezimenduen irudia hobetuz.

Ardatzak	Lokal hutsak	Eskaintza		Hutsik daudenen %	Lehentasuna	
		Jarduera dutenak	Guztira			
1.EREMUA: ERDIGUNEA	76	153	229	%33,2	2	
Ibargarai (15-45, 32-56)	25	19	44	56,8%	1	
Fraiskozuri	7	17	24	%29,4	1	
Simon Arrieta	6	10	16	%37,5	1-2	
Zurradero	5	10	15	%33,3	1-2	
2 EREMUA: ALDEZAHAR	78	129	207	37,7%	1-2	
Barrenkalea	10	39	49	20,4%	2	
Bidekurutzeta	13	28	41	31,7%	1-2	
Pedro Deuna	13	12	25	52,0%	1	
Artekalea	14	11	25	56,0%	1	

EKINTZAK:

- LOKAL HUTSEN DINAMIZAZIO PLANA. (DEFINIZIOA, ESKATUTAKO IRIZPIDEAK, INBERTSIOAK, KUDEAKETA, ETA ERANTZUNA)
- LOKALEN OKUPAZIORAKO BULTZADA PUBLIKOA. (FISKALA ETA EKONOMIKO-a)
- PRESTAKUNTZA-ZENTROEKIN, ARTISAUEKIN ETA EKINTZAILEEKIN ELKAR LANA.
- LANTALDEA.

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA. LOKAL HUTSAK / TRANSMISIOA

4. ILDOA.

5. ILDOA.


6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.3.1 Lokal hutsen irudia eta okupazioa hobetzea lehentasunezko kaleetan

HELBURUA:

HIRI-BILBEAREN BERRESKURAPENA ETA LOKALEN DINAMIZAZIOARI LAGUNTZEA




ARTEKALE



IBARGARAI



IRIZAR



FRAISKOZURI

Ardatz	Lok. hutsak	Hutsik dauden %	Lehentasuna
1.EREMUA: ERDIGUNEA	71	%31,6	● ● ●
Ibargarai (15-56)	25	%56,8	● ● ●
Frasikozuri	7	%29,4	● ● ●
Simon Arrieta	6	%37,5	● ● ●
2.EREMUA:ALDEZAHARRA	78	%37,7	● ● ●
Barrenkalea	10	%20,4	● ● ●
Bidekurutzeta	13	%31,7	● ● ●
Pedro Deuna	13	%52,0	● ● ●
Artekalea	14	%56,0	● ● ●



PEDRO DEUNA



BIDEKURUTZETA



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA. LOKAL HUTSAK / TRANSMISIOA

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.3.2 Negoioen transmisio zerbitzua

HELBURUA:

Negoio-transmisioa erraztea, ekintzailatza sustatuz eta negozio-itxiera saihestuz.

JUSTIFIKAZIOA:

NEGOZIO BAT IXTEA ETA BERRIZ IREKITZEA KOSTU ALTUA DU HIRI BATEKO EREDU SOZIOEKONOMIKOAN

Bergarako merkataria, ostalari eta zerbitzu sektoreko profesionalen ehuneko nabarmen batek (% 30,4ak), 55 edo urte gehiago ditu, eta erretiroko adinetik hurbil dago edo erretiroan pentsatzen ari da.

Profesional hauetatik, 5 urte edo gutxiagoko epe batean, erretiratzeko planak dituen profesional kopurua, %44,4ra iristen da.

Egoera honek epe laburrean, establezimendu itxiera garrantzitsu bat eragin dezake, beraz, halako ondorioa aintzen saiatu behar da.

Erakargarriak diren eta etorkizuna duten negozioak

Prozesuan lagunduko duten profesionalen konpromisoa

Profesional berriak interesarekin.



Prestakuntza-zentroak eta ekintzailatza sustatzeko ekimenak

Erakundeetatik bideratutako ekintzak, negozioen transmisioa sustatzeko.

EKINTZAK:

- NEGOZIOEN TRANSMISIO ZERBITZUA
- EKINTZAILEEKIN HARREMANA, IKASKETA-ZENTROEN BIDEZ, BERRITZEGUNE, ...

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA. SEKTORE ESPEZIFIKOEN
SUSTAPENA

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.4.1 Azoka, bertako produktua, Km.0

HELBURUA:

- Azoka sustatzea eta bezero eta saltzaileen arteko harremana indartzea
- Bertako produktuak eta kontsumo jasagarria bultzatzea
- Ekoizle txikiak laguntzea

JUSTIFIKAZIOA:

Hiri eta udalerrietan, Merkatu Plazak, indar handia behar du izan, bertako txikizkako merkataritzaren lokomotora gisa. Bai barneratzen dituen negozio txiki eta autonomoen artean, baita kanpoaldean ezartzen den saltoki eta establezimenduen jarduera indartuz.

Diagnosian jaso den bezala, Azokaren eraikina baliabide ona da, baina ez dago guztiz aprobetxatuta, ez zaio behar bezalako etekina ateratzen ari.

Postu erdiak baino gehiago hutsik daude, eta asteazkenetan eta larunbatetan ez ezik, jarduera gutxi dago. Honek, eragin negatiboa du, bai azokan, bai herriko saltokietan ere. Gainera Bergara, nahiz eta udalerri industrialia izan, baditu lehen sektorean dabilzan ekoizle txikiak (jarduera osoaren %5 –era iristen dira).

COVID-19 egoera dela eta, Bergarako Azokan, mugimendu gehiago egon da, bezero gehiago hurbildu da beharrezkoak ziren elikadura/janarien bila, beraz, momentu ona da, joera hau mantendu eta Azokari buelta bat emateko.

Inguruko beste herrietan Azoka Plazen alde apustua egiten ari da: Azpeitia eta Eibar adibidez. Bi udalerri hauetan: km0 produktuak, baserritarrak eta kontsumo arduratsua eta jasagarritasuna ardatz estrategikoak dira.



EKINTZAK:

AZOKA BERGARATZEN MUGIMENDUAREN ESKUTIK, MERKATU PLAZAREN SUSTAPENA:

- AZOKAKO POSTUEN ESLEIDUNEI EGUNERO JOATEA/IREKITZEA BEHARTZEA.
- BASERRITARREN ETA INGURUKO EKOIZLE TXIKIEN PRESENTZIA AREAGOTZEA.
- AZOKAREN MIX-KOMERTZIALARI BUELTA BAT EMATEA, DISEINU BERRI BATEKIN: JARDUERA OSAGARRIEKIN BETETZEA (KAFETEGIA, ZERBITZU DESBERDINAK, EREIN DA JAN...).
- BEHEKO SOLAIRUARI (LEHEN BM SUPERMERKATUA) ERABILERA BERRIA EMAN. ELIKAGUNEAREKIN LOTUTA (AZPEITIKO EREDUA JARRAITU EREIN DA JAN-PROIEKTUAREKIN LOTURA BILATUZ .



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA. SEKTORE ESPEZIFIKOEN
SUSTAPENA

5. ILDOA.

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.4.2 Ostatu eta jatetxeak. Turismoa

HELBURUA:

- Turismoa sustatzeko erronka mantendu eta indartu. (Diru partida espezifikoa)
- Ostatu eta jatetxeen kopurua handitu (Establezimenduak eta eskainitako plazak).
- Ostatu eta jatetxeen kalitatea eta zerbitzu ona bermatu, turismo estrategiarekin lotuta.

JUSTIFIKAZIOA:

Bergaran, turismo estrategia landu bat garatzen ari da azken urteetan, bai erakunde publiko zein pribatuetatik. Horregatik, turismo estrategia horri indarra emateko, jatetxe eta ostatu baliabideak areagotzeko premia ikusten da.

Diagnosi fasean jaso den moduan, ostatu eta jatetxeen balorazioa ona da, eta inguruko bezeroak erakartzen ditu: Arrasate (%83,4) eta Antzuolatik (%66,7), batez ere. Hala nola, establezimendu kopurura baxua da, horrelako eskariari aurre egiteko, hare gehiago, turistikoki estrategia indartsu eta eraginkor bat bultzatu nahi bada.

EKINTZAK:

- OSTATU ETA JATETXEAK IREKITZEKO LAGUNTZA ESPEZIFIKOAK MARTXAN JARRI.
- PRESTAKUNTZA ESKAINI, ESTABLEZIMENDUEN PROFESIONALITASUNA AREAGOTZEKO. KALITATE ZIURTAGIRIAK LORTZEKO TRESNAK SUSTATU.
- ERDIALDEAN DAUDEN LOKAL HUTSAK APROBETXATU OSTALARTITZAKO NEGOZIO BERRIAK IREKITZEKO.
- BEHARREZKOAK DIREN BAIMENAK ETA ARAUDIA BERRIKUSI ETA BALDINTZAK LEUNDU.
- EKINTZAILEEKIN HARREMANETAN JARRI, DEBAGOIENAREN BIDEZ, ETA PRESTAKUNTZA ESKAINI, OSTALARITZAN SARTZEN ANIMATZEKO.
- NEKATUR ETA BESTE ELKARTEEKIN HARREMANETAN JARRI ETA ELKAR-LANA SUSTATU.
- TURISMOA INDARTZEKO 30.000 EUROKO PARTIDA.



nekatur



CALIDAD TURISTICA



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA. MERKATAL HOBEKUNTZA
URBANISTIKOAK

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.5.1 Eskaintzaren ikusgaitasuna eta kale paisaiaren harmonia hobetzea


HELBURUA:

Eskaintzaren ikusgaitasuna eta kale paisaiaren harmonia hobetzea zenbait ekintzekin (zabor edukiontzia, landaretza-lorezaintza, espaloiak, merkataritza-lokalak, argiztapena...)

JUSTIFIKAZIOA:

KALEKO ESKAINTZAREN IKUSGAITASUNA
TXIKIZKARIEN LEHIAKORTASUNAREN FAKTORE
KRITIKO BAT DA.

- Merkataritza-ardatzetan landaretza, zabor edukiontzia eta aparkamenduak merkataritza-eskaintzaren ikusgaitasuna gutxiagotzen duten guneak antzeman dira.
- Eskaintzaren ikusgaitasuna galtzeak, honen erakargarritasuna murrizten du eta hortaz, salmentetan eragin negatiboa du.



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA. MERKATAL HOBEKUNTZA
URBANISTIKOAK

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.5.1 Eskaintzaren ikusgaitasuna eta kale paisaiaren harmonia hobetzea

HELBURUA:

Eskaintzaren ikusgaitasuna eta kale paisaiaren harmonia hobetzea zenbait ekintzekin (zabor edukiontzia, landaretza-lorezaintza, espaloiak, merkataritza-lokalak, argiztapena...)

JUSTIFIKAZIOA:


KALEKO ESKAINTZAREN IKUSGAITASUNA TXIKIZKARIEN LEHIAKORTASUNAREN FAKTORE KRITIKO BAT DA.

– Zenbait guneetan, batez ere Alde zaharrea, espaloiek ez dituzte merkataritza-fluxu egokirako gomendagariak diren 6 metroak betetzen.

– Merkataritza ardatz nagusietako zenbait espaloiek, zoru irristakorra dute, eta honez gain, honen narriadura nabarmena da.

EKINTZAK:

- LANDARETZAREN ALTURA KONTROLATZEA GEHIEGIZKO MAILA GAINDITU EZ DEZAN.
- EDUKIONTZIAK LURPERATU EDO LEKUALDATU KALE PAISAIA HOBETZEKO.
- ZORU IRISTAKORRA ETA ZULATUA DUEN ESPALOIETAN ESKU HARTZEA.



1



Ibargarai ardatz nagusian, edukiontzia eta zoru irristakorra eta narriatua.



2

Kruz Gallastegin Edukiontzia, eta landaretza, aparkalekuen eraginari gehitzen dira, erakuslehioen ikuspegia trabatuz.



3

Irizar pasalekua Edukiontzia, aparkaleku eta eraikuntza morfologiari gehitzen dira, negozioen ikuspegia trabatuz.



4

Barrenkale Espaloiaaren zabalera alden neurrian handitu(>6m).

Gaur egun Ibargarai ardatzean martxan dauden obra eta hobekuntza urbanistikoak direla medio, aldaketa positibo garrantzitsua eratorriko da, Bergarako erdigunean.

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA. MERKATAL HOBEKUNTZA
URBANISTIKOAK

6. ILDOA.

7.2. EKINTZA PLANA

L.5.2 Eraikin hutsak

HELBURUA:

Erdigunean kokatutako eraikin hutsei konponbide bat eman, jarduera eta erabilera berriak ezarriaz.

JUSTIFIKAZIOA:

- Miguel Altuna eraikina, erdigunean kokatutako 5.000m² inguruko eraikin itzela da, Bergarako merkataritza ardatz nagusienean, Ibargarai kalean, hain zuzen ere.
- 1996 urtetik, eraikin hau Lanbide Heziketako Zentro Integral Publikoa izan da, eskualdean erreferente bat izanik. Zentro honek, 2019an kokapen berri batera mugitzeko beharra ikusi zuen, eta geroztik, eraikina hutsik dago.
- Hutsik egotearen eragina handia da, bai ardatzaren irudirako baita ondoko merkataritza eta zerbitzu establezimenduetarako.
- Dena den, eraikinaren jabetasuna publikoa izanik, ez da Bergarako Udalarena ehuneko ehunean, beraz, konponbidea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, landu beharko da.
- Elkarriketetan jaso dira, proposamen batzuk, beraz, lantzeko aukerak daude, partaidetza prozesu bat ireki, eraikinari konponbidea emateko.



EKINTZAK:

- ERAIKINA BETETZEKO IDEIAK JASO.
- BIZTANLERIAREKIN ETA BERGARAKO AGENTE SOZIAL ETA ELKARTEEKIN PARTAIDETZA PROZESU BAT IREKI.
- MERKATARITZAREKIN LOTURIKO JARDUEREI LEHENTASUNA EMAN.

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA. BEDELKAR: JARDUERA ETA PARTAIDETZA

7.2. EKINTZA PLANA

L.6.1 Elkartearen balorazioa

HELBURUA:

Bedelkarreko kideen balorazioa eta partaidetza prozesuaren sustatzea, jarduera plan berri bat bultzatuz.

JUSTIFIKAZIOA:

Diagnostiko fasean, egin diren inkestatan Bedelkarreko kideek balorazio ona egiten dute Elkarteari buruz, %73ak ona dela dio.

Gainera, diagnostikoan, bere jardueraren bidez Bergara sustatzeko aukerak existitzen direla esaten dutenak %59ra iristen dira.

Hala ere, %20 batek, bere jarduerarekin gauza gutxi lortu daitezkeela adierazten du eta beste %20bategi ez daki edo ez du erantzun nahi, ehuneko hau, nabarmena d.


Beraz, badirudi, Bedelkarren gaur egungo jarduerari eta ekintza desberdinei buelta bat ematea komeni dela.

Gainera, COVID-aren ondorioz, bizi dugun egoera berri honek, lan-talde eta elkarte desberdinen erronkak eta bere lanaren ondorioz espera dena aldatu ditu, lidargo firme baten beharra azaleratuz.


EKINTZAK:

- ELKARTEAREN BARRUAN PARTAIDETZA PROZESU BAT IREKI.
- ELKARTEKO KIDEAK TALDE TXIKIETAN ELKARTU ETA ELKARTEAREN JARDUERAK ALDATZEKO PROPOSAMENAK EGIN.
- DENON ARTEKO URTEKO JARDUERA PLANA ADOSTU.
- INGURUKO BESTE ELKARTEKIN HARREMANETAN JARRI, ZER NOLAKO JARDUERAK EGITEN ARI DIREN IKUSTEKO ETA HAUEN EGOKITASUNA BALORATU.

Nola baloratzen duzu BEDELKAR (%)



BEDELKAR-en bitartez Bergarako merkataritza sustatzeko aukerak daude (%)



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA. BEDELKAR: JARDUERA ETA PARTAIDETZA

7.2. EKINTZA PLANA

L.6.2 Kide bilaketa

HELBURUA:

Elkartea indartu, kide berriak erakarri eta hauen lotura sendotu.

JUSTIFIKAZIOA:

Elkarte bateko indarra eta sendotasuna, bere kideen arteko harremanek adierazten dute.

Diagnosi fasean eta elkarriketetan atera da, kide bilaketa ez dela oso proaktiboki egin, badaude saltokiak, kide izateko bisitatu ez direnak, ez ireki zutenean, ezta orain ere. Beraz lan egiteko marjina dago.

Covid-19 dela medio, Bedelkar bezalako elkarte bateko parte izateko garrantziak indarra hartu du.

Bergaran elkarte kultural eta kirol elkarte ugari daude, eta hauekin batera, Beldekar sendotzeko aukera ona izan daiteke.

EKINTZAK:

- KIDE BERRIAK LORTZEKO KANPAINA:
 - ESTABLEZIMENDUETARA BISITAK (establezimendu berriak eta urteak daramatzatenak, iraganean elkarte kide izan zirenak)
 - PARTE HARTZEKO HOBARIAK ESKAINI.
 - UDAL LAGUNTZAREN GARRANTZIA AZALDU, ELKARTE BATEKO KIDE IZATEAGATIK.
 - LAGUNTZA PUBLIKOA ETA BERGARAKO UDALAREN BABESA.



7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA. BEDELKAR: JARDUERA ETA PARTAIDETZA

7.2. EKINTZA PLANA

L.6.3 Fidelizazioa

HELBURUA:

Establezimenduetara hurbiltze iraunkor bat sustatzea, bezeroaren fideltasunera laguntzen duten hitzaldien bidez.

JUSTIFIKAZIOA:

BEZEROA ESTABLEZIMENDURA GERTURATzea

Merkatarien eta sektoreko profesionalen arteko erlazioa sustatzea.

Bezeroen fidelitasuna bermatzeko modu bat da, eta bezero berriak sortzeko aukera ere bai, establezimendua ezagutzen ez duten pertsonak gerturatzea lortu dezakezulako.

Gainera, promozioa eta publizitatea hobetzen da ezagutzen ez dutenen artean.

DISFRUTA Y APRENDE CON CHARLAS GRATUITAS DE PROFESIONALES ENCANTADOS DE COMPARTIR SU CONOCIMIENTO Y EXPERIENCIA EN DIFERENTES ÁMBITOS.



PROGRAMAS DE ENCUENTROS

Más información en: www.bidashop.org



EKINTZAK:

- SALTOKIETAN INTERESEKO GAIK JORRATZEN DITUZTEN HITZALDIK, MERKATARITZA-ORDUTEGITIK KANPO ANTOLATZEA.
- BEZEROEKIN EDO HERRIKO PERTSONAIA OSPETSUEKIN HARREMANETAN JARTZEA (MUSIKA, IKERKETA, HAURTZAROA, GAZTERIA...) ISTORIO ETA GAI DESBERDINAK IZAN DITZATELA.
- ASTEROKO HITZALDI-EGUTEGIA EGIN, UDALERRIAREN ESTABLEZIMENDU DESBERDINETAN LANDUKO DIRENAK.
- BEZEROEN ARTEAN HITZALDIETAKO AURREZ IKUSITAKO AGENDA BANATU, KOMUNIKAZIO PLANA EGIN, BEZERO BERRIAK ERAKARTZEKO.

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

1. ILDOA.

2. ILDOA.

3. ILDOA.

4. ILDOA.

5. ILDOA.

6. ILDOA. BEDELKAR: JARDUERA ETA PARTAIDETZA

7.2. EKINTZA PLANA

L.6.4 Bergaran Bizi ekimena

HELBURUA:

Bergaran Bizi ekimena bultzatzea, partaideak gehituz eta Bergarako dinamizazioa sustatuz

JUSTIFIKAZIOA:

Bedelkar elkarteak, Udala eta herriko beste saltoki eta establezimenduen elkar-lana eta arduragatik sortu zen Bergaran Bizi Ekimena, eta bere sloganean jasotzen den bezala, herrian erosteak denontzat da onuragarria.

Ekimen honen baitan, dinamizazio ekintza desberdinak antolatu izan dira, ezagunenak moda desfilea eta gabonetako kanpainak izanik.

Gaur egun COVID-19 egoera dela eta, bere jarduera indartu da, eta udalarekin elkarlanean ibili dira Bergara Biziko kideak berrogeialdian, bideo-bilerak eginez, sektorearen zalantzak eta jarduera desberdinak diseinatzeko. Hala nola, bilera hauetatik, sentsibilizazio kanpaina eta digitalizazioaren inguruko prestakuntza garatu dira.

Izan ere, egoera berri honek, lan-talde eta elkarte desberdinen betebeharreko paperaren itxaropenak handitu ditu, lidergo firme baten beharra azaleratuz.

Bergara
Bizi



EKINTZAK:

- BERGARAN BIZI EKIMENA SUSTATZEKO JARDUERAK:
 - DINAMIZAZIO JARDUEREI JARRAIPENA EMAN (ESKARIAN ZUZENKI ETA KALEKO GIROAN ERAGIN)
 - UDALAREKIN ELKAR-LANA MANTENDU (HITZARMENAK)

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

7.3 ADIERAZLEAK

JARDUERA-ILDOAK Garatu beharreko ekintzak	Exekuzio-epea	ADIERAZLEA 2020/2021	Inplikaturako eragileak
1. ILDOA. UDAL LAGUNTZAK (EKON-FIN ETA BESTELAKOAK)			
1.1 Diru laguntzak			
COVID-19ren ondorioz, bat bateko laguntza ekonomikoa eta finantzarioa eskaintzea.	Laburra/Ertaina	Diru laguntzak (kopurua eta €)	Udala
1.2 Zerga eta Tasak			
COVID-19ren ondorioz, bat bateko laguntza ekonomikoa eta finantzarioa eskaintzea.	Ertaina	Murritu diren zerga eta tasak (kopurua eta €)	Udala
1.3 Aholkularitza			
Posta bidez, telefono bidez edo presentzialki kontsultak.	laburra	kontsulta kopurua	Udala
Informazio orokorraren bilketa	laburra	web gunean sartu den informazioa (kopurua eta baliogarritasun maila)	Udala
1.4 Bonoak eta Sentsibilizazio Kanpaina			
Bono kanpainaren balorazioa	laburra	bono salmenta (kopurua)	udala
	laburra	Saltokien salmentak (bataz besteko diru sarreraren handitzea %)	saltokiak
parte hartu duten saltokiak	laburra	Kanpainan parte hartu duten saltokiak (kopurua)	saltokiak
Sentsibilizazio kanpaina	laburra	Egoiliarren erantzuna (bataz besteko gastuaren handitzea %)	udala / saltokiak
2. ILDOA. DIGITALIZAZIOA			
2.1 Estrategia Digitala: Plataforma digitala			
Plataforma propioa edo bestelako plataforman parte hartzeko erabakia. Diseinua.	Laburra/Ertaina	Zerbitzu berrian parte hartzen duten establezimenduak (Kopurua)	Udala / Bergaran Bizi/ Bedelkar
Martxan egon daitezkeen inguruko plataformekin kontaktua.			
2.2 Etxerako Banaketa Zerbitzua			
Zerbitzu berriaren Diseinua	Laburra	Zerbitzu propioa edo azpi-kontratua izango denaren erabakia.	Udala/ Bergaran bizi/Bedelkar
Zerbitzu berriaren ezartzea eta martxan jartzea.	Ertaina	Zerbitzu berrian parte hartzen duten establezimenduak (Kopurua)	Udala / Bergaran Bizi/ Bedelkar
Ibilbideak eta auzo eta kaleen kokapenak kontuan hartu ordutegiak definitzeko			

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

7.3 ADIERAZLEAK

JARDUERA-ILDOAK Garatu beharreko ekintzak	Exekuzio-epea	ADIERAZLEA 2020/2021	Inplikaturako eragileak
3. ILDOA. LOKAL HUTSAK ETA TRANSMISIOA			
2.2 Hutsik dauden lokalak bete eta duten irudia hobetu			
Lan-talde bat sortzea, Lokal Hutsak betetzeko programa bat diseinatzeko. (Kudeaketa, Espazioen definizioa, Irizpideak, Aurrekontuak.	Laburra	Lan-talde bat sortu eta plan bat garatu	Udala / Bergarn bizi /Bedelkar
Hutsik dauden lokalen identifikazioa, berrikuntza eta egokitzea.	Ertaina	Bete diren lokal hutsak (kopurua)	Udala / lokal hutsen jabeak
2.2 Transmisio Zerbitzua			
Erretirorako prest dauden profesionalen, prestakuntza-zentroetako arduradunek, garapen agentzien eta ekintzaileez osatutako lan-talde bat sortzea, hauen arteko harremanak sendotzeko.	Ertaina	Lan-talde bat sortu eta protokolo bat garatu	Udala/Prestakuntza zentroak/Ekintzaileak/ Garapen Agentzia
Transmisio Zerbitzuaren diseinua. Aholkularitza profesionala.	Ertaina	Aholkularitza profesional baten zerbitzuen kontratazioa. (Esleipena eta egindako bitartekaritzak)	Udala/ Aholkularitza
Transmisio Zerbitzuaren inplantazioa	Luzea	Transmisio prozesu bat hasi duten negozioak (kopurua)	Udala
4. ILDOA. SEKTORE ESPEZIFIKOEN SUSTAPENA			
2.2 Azoka, Bertako produktuak Km0			
Azokaren Betetze maila hobetzea	Laburra/ertaina	Postu finko berrien irekiera (kopurua)	Udala
Azokaren sustapena	Ertaina	Azokaren bisitarien kopurua handitzea (%)	Udala /bertako profesionalak
	Ertaina	Kontsumitzaile bakoitzeko batz besteko gastua handitzea (€)	Udala /bertako profesionalak
2.2 Ostatu eta Jatetxeak. Turismoa			
Ostatu eta Jatetxeak irekitzeko laguntza	Ertaina	Diru laguntzak (kopurua eta €)	Udala / Beste eragile publikoak
Prestakuntza profesionaltasuna bermatzeko	laburra / ertaina	Tailer eta jardunaldi kopurua	Udala / Beste eragile publikoak / ostalaritza eta turismo elkarteak
Ekintzaileekin harremana, Debagoienaren bitartez.	Ertaina	Debagoienarekin kontaktua, bilera kopurua. Ekintzaile berrien identifikazioa eta kopurua	Udala / Beste eragile publikoak / ekintzaileak
Turismorako diru laguntza espezifikoak	laburra / ertaina	Diru laguntzak / Partidak (kopurua eta €)	Udala

7. MERKATARITZA SEKTOREKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA JARDUERA PROPOSAMENAK

7.3 ADIERAZLEAK

JARDUERA-ILDOAK Garatu beharreko ekintzak	Exekuzio-epea	ADIERAZLEA 2020/2021	Inplikaturako eragileak
5. ILDOA. MERKATAL HOBEKUNTZA URBANISTIKOAK			
5.1 Eskaintzaren ikusgaitasuna eta kaleko paisaia			
•Mailaka edukiontzien, lorezaintzaren eta aparkalekuen diseinuan jardutea.	Laburra/Ertaina	Berritutako espazioak (kopurua)	Udala
5.2 MAI Eraikinari Konponbidea eman			
Eraikina betetzeko ideiak jaso. Partaidetza prozesua ireki (Bilerak, parte-hartze tresnen garapena).	Ertaina	Ideiak (kopurua)	Udala eta herriko elkarteak
Eraikina betetzeko ideiak jaso. Partaidetza prozesua ireki (Bilerak, parte-hartze tresnen garapena).	Laburra/Ertaina	Bileren antolaketa eta lan taldeak.	Udala, herriko elkarteak, biztanleria
6. ILDOA. BEDELKAR: JARDUERA ETA PARTAIDETZA			
6.1 Elkartearen Balorazioa			
Balorazioa, ideia eta lan-ildo berrien jasotzea. Partaidetza prozesu orokorra martxan jarri.	Laburra/Ertaina	Bilerak, ideia eta lan-ildo berriak (kopurua)	Bedelkar/ Udala
6.2 Kide berrien bilaketa			
Kide berriak bilatu: establezimenduetara bisitak	Laburra/Ertaina	Bisita kopurua	Bedelkar /Udala
Parte hartzeko hobariak	Laburra/Ertaina	eskaintako hobariak (kopurua eta €)	Bedelkar /Udala
6.2 Fidelizazioa			
Saltokietan hitzaldiak bezeroaren eta saltokien haremana estutzeko.	Ertaina	Hitzaaldi kopurua Fidelizazio Tresnen azterketa	Bedelkar /Udala
6.2 Bergaran Bizi			
Dinamizazio jarduerari jarraipena eman	Laburra/Ertaina	Martxan jarri diren jarduerak (kopurua eta balorazioa)	Bergaran bizi taldea
Udalarekin elkarlana (Bilerei jarraipena eman)	Laburra/Ertaina	Bilera (kopurua)	Bergaran bizi taldea